



ITSASONDOKO
UDALA



ITSASONDOKO **GAZTELEKU** - ko **ETA GAZTETXEA** **ERABILTZEKO ARAUTEGIA COVID 19 EGOERAN**

DESKRIBAPENA

Gaztelekua Itsasondoko nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzua da. Maila indibidualean autonomia eta erantzukizuna garatuz, komunitate mailan aritzeko gaitasunak eskuratzea da helburua eta gazte hauek herriko parte hartzaile bihurtzea.

NORENTZAT

Gaztelekua 12 urtetik aurrera erabili ahalko da.

SARBIDEA

Bertara sartu ahal izateko honakoa izan beharko dugu kontuan:

- ⤴ 12 – 16 urte bitartekoak **gurasoen txartelarekin** bakarrik sartu ahalko dira.
- ⤴ 16 urtetik aurrera espazio honetan sartzeko **txartela** egin ahalko da.
- ⤴ Txartelaren **kostua 3 €**-takoa da, erabiltzaile berrientzat.
- ⤴ Aurretik txartela duenak hau aktibatu beharko dute, **COVID 19 konpromezu orria** sinatzeaz gain.
- ⤴ **Txartela udalean** egin beharko da, aurrez aurreko harreran (astelehenetik ostiralera 8:30 – 13:30).
- ⤴ Txartela eskuratzeko eskabide orria bete beharko da, **datu guztiak** zehaztuz eta COVID 19 EGOERA DELA eta hartu beharreko konpromezu orria sinatuko da.
- ⤴ Espazioaren erabilpen egokia egiten ez bada eta betebeharreko araubideak errespetatzen ez badira **udalaren eskumena da gaztelekua istea**.



**ITSASONDOKO
UDALA**



GAZTELEKUA ERABILTZEKO OSASUN PROTOLOKOA

1. Kutsapenaren kontrola eta prebentzioa

- Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, Gaztelekuan parte hartu duen haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da Gaztelekuara joango. Hala nola kutsatua dagoen norbaitekin harremana izan badu ere.

- Gaztelekuaren sarreran osasun-adierazpena jarriko da eta agindutako segurtasun-protokolo eta neurri guztiak beteko dira, besteak beste:

1. Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuneko adierazpena izatea, arrisku- talde batekoa ez dela eta bere bizikideen artean arrisku-talde bateko inor ez dagoela ziurtatuz. (diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa, biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, tratamendu aktiboan dagoen minbizia, haurdun dauden emakumeak...)

2. Parte-hartzaile bakoitzaren konpromisoa izatea COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu ez duela Gaztelekuko jardueran parte hartuko.

3. Parte-hartzaile bakoitzaren egiaztagiria izatea, derrigorrezko higiene eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartuz.

4. Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako baimen informatua izatea.

- Gaztelekuan, kartelak eta informazio-orriak egongo dira, segurtasun-portaera eta distantzia egokiak, higiene-neurriak eta abar gogorarazteko.

- Gaztelekuan partaideen erregistro orri bat egongo da, hori sinatu beharko dute gaztelekuan sartzean. (Eguna eta ordua zehaztuz)

- Gaztelekuan dagoen materiala ez partekatzea aholkatzen da.

2. Derrigorrezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea

- Erabiltzaileek honako hauek izango dituzte eskura instalazioaren sarreran eta komunetan: ura, xaboa eta eskuak lehertzeko papera eta gel hidroalkoholikoak.



ITSASONDOKO UDALA



- Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta haur eta nerabeak 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.

3. Arrisku-taldeen eta sozialki desabantailak dituztenen babesak

- Arreta berezia eskainiko zaie parte hartzeko aukerak urrituta dituztenei (gizarte-desabantailako egoeran daudenak, dibertsitate funtzionala edo intelektuala duten pertsonak)

4. Neurri orokorrak

- Aireztapena bermatzeko, une oro leihoak irekita egon beharko dute.
- Une berean ezingo dira 10 lagun baino gehiago egon gaztelekuan, taldekatzeak gehienez 6 lagunetakoak izan daitezke.
- Musukoa derrigorrezkoa izango da une oro.
- Otorduren bat egin behar bada, distantziak handitu beharko dira eta musukoa bakarrik jateko orduan kendu ahal izango da.
- Otorduren bat eginez gero, erabilitako ontziteria garbitu, lehortu eta beraien tokian utzi beharko dira.
- Bertako hozgailuan edo sukaldean ezingo da jan edo edari soberakin gelditu, erabiltzaile bakoitzak bere hondakinetaz arduratu behar du. Hau da, zaborrik ezin da bertan utzi.
- Erabiltzaileek gaztelekura sartu eta ateratzean eskuak gel-az garbituko ditu.
- Erabiltzaileak erabilitako eremua desinfektatu beharko du.
- Desinfektazio baliabideak udalak jarriko ditu. Hauen falta egonez gero udalari jakinarazi beharko zaio.
- Gaztelekuan 48 ordu lehen egon den partaideren batek COVID19an positibo eman badu, udalari jakinarazi behar dio (943881170)



**ITSASONDOKO
UDALA**



Araubide hau moldagarria da, agintariek emandako jarraibideen baitan aldatzen joango dena.

COVID 19 EGOERA DELA ETA ESPAZIOA ERABILTZEKO KONPROMEZUAK

Sarbidea:

**SARTZEN DEN PERTSONA BAKOITZAK BERE TXARTELA PASA BEHAR DU
IRAKURGAILUTIK, TXARTELA IZATEA DERRIGORREZKOA DA, TXARTELA EZ
DUEN INOR EZIN DA SARTU**

Aforoa:

Gaztelekuko eraikinean ezingo dira **10 pertsona** baino gehiago egon aldi berean.

Kopuru hori badago eta beste lagun talde bat etorriko balitz, elkarrekin antolatu eta txandak antola ditzakezue, jende kopuru hori ez gaindituz.

Ordutegia:

Astelehenetik- Ostegunera: 16:00-22:00

Ostirala, larunbata eta igandea: 16:00-00:00

Orri hau izenpetuz, honako konpromezu zehatzak hartzen ditut:

- Espaziora sartzeko nire txartela erabiliko dut. Atea irekita egon arren txartela pasako dut erregistratua gelditzeko.
- Une oro udalak ezarri duen **PROTOKOLOA** bere osotasunean beteko dut.
- Jakitun naiz, erabilera okerraren aurrean udalak txartela kendu diezaidakela.



**ITSASONDOKO
UDALA**



ESKABIDEA

Bete datuak zehaztasunez mesedez:

Guraso/tutorearen izen abizenak:	
Gazteleku/ gaztetxea erabiliko duen pertsonaren izen abizenak:	
Gazteleku/ gaztetxea erabiliko duen pertsonaren jaiotze data:	
Helbidea:	
Gurasoen NAN:	
Eskatzailearen telefono mugikorra:	
Gurasoen telefono mugikorra:	
Posta elektronikoa bat gutxienez:	

Eskabide hau betez:

1. ITSASONDOKO GAZTELEKU/ GAZTETXERAKO SARBIDEA ESKATZEN DUT, BETI NIRE TXARTELAREKIN SARTUKO NAIZELARIK.
2. AURREZ AIPATURIKO ARAUAK BETETZEKO KONPROMEZUA HARTZEN DUT, COVID 19 EGOERA DELA ETA UNE ORO UDALAK EZARRITAKO PROTOKOLOA BETEKO DUT.
3. ADIERAZTEN DUT EZ NAIZELA ARRISKU TALDEKOA ETA NIRI BIZIKIDEEN ARTEAN ERE EZ DAGO ARRISKU TALDEKORIK.



**ITSASONDOKO
UDALA**



4. ARAUTEGI HAU EZ BETETZEAK TXARTELA (GAZTELEKURA SARBIDEA) KENTZEA
SUPOSATUKO DUELA JAKITUN NAIZ.

Itsasondon, _____ko _____aren _____an

SINADURA